

Elorrieta: «Sindikatuaren batasunik ezak negoziaketa atzeratu egin du»

«Arlo sozialean atzerapen prozesu batean murgilduta» gaudela deritzo ELAko buruzagiak

Euskal Herriko sindikatuen artean batasunik ez egoteak langileen indarra ahultzen eta aurtengo negoziaketa kolektiboa atzeratzen lagundu egin duela adierazi zuen atzo Jose Elorrieta ELAko idazkariak. Langileen laurden batek soilik sinatu du hitzarmena, batez besteko % 4,60ko soldata igoerarekin.

BILBO

Hego Euskal Herrian langileen % 27ek sinatu dute euren hitzarmen kolektiboak oraingoz, ELAko idazkariak atzo eman-dako datuen arabera. Negoziaketa baldintzatzen ari diren arazo nagusiak krisi ekonomikoa, lan erreforma, enpresarien jokabidea eta sindikatuen batasunik eza direla uste du Elorrietak.

Azken arazo horri aurre egiteko sindikatuen batasuna eskatu zuen atzo, eta helburu horrek «lehenasuna izango du ELA eta LABentzat», ziurtatu zuen. Eginkizun horretan CCOOren prestutasuna ere onetsi zuen eta UGTekin bateratzeko aukera ere ez zuen ukatu.

Elorrietak aurtengo lehen sei hilabeteetako ekonomiaren egoerari eta sindikatuaren jardunari buruzko txostena aurkeztu zuen atzo ELAko Kontseilu



Elorrietak aurtengo lehen sei hilabeteetako egoerari buruzko txostena aurkeztu zuen.

Nazionalean, sindikatuko 116 kidek osatzen duten kongresuen arteko organorik gorena.

«Arlo sozialean atzerapen prozesu batean murgilduta gaudela, eta horren erakusgarria botere politikotik lan merkatuaren egituraren reformari ematen ari zaion garrantzia da», azpimarratzen du txostena.

Adierazle ekonomikoek egoera hobetzen ari dela dioten arren, langabeziak handitzen jarraituko duela ziurtatzen eman zuen Elorrietak. «Estatuan egiten ari diren hazkunde aurrikus-

penak ez dira nahikoak lanpostuen sorrera itxaroteko, eta ezin dute barne eskariaren joera negatiboa ezkatatu», azaldu zuen.

Sindikatuak aurtengo lehen erdialdean egin dituen ekintzen artean urtarilaren 27ko greba orokorra azpimarratu zuen. Ildo horretatik, Madrilgo Gobernuak langileen eskakizunei jaramonik egin ez izana PSOerentzat kaltegarria izango zela aipatu zuen.

Negoiazio kolektiboaren atzerapenaz, Bizkaian eta Araban bereziki kezagarria dela ohartarazi zuen Elorrietak, azken

herrialde honetan «ia hasi ere ez baita egin». Ez da orobat gertatzen Gipuzkoan, bertan «langileen % 89ek beren lan baldintzak hitzartuta dauzkatelako».

EAEko eta Nafarroako 423.000 pertsonarengan du eragina negoziazioak, eta hauetatik 116.000 langilek dauzkate sinatuta edo egokituta hitzarmenok. Laz, epe honetan langileen % 64k zeuzkaten hitzarmenak sinatuta.

Dauden 161 sektore hitzarmenetatik, 36 negoziatu eta 23 egokitu egin dira. Horietan, batez besteko soldata igoera % 4,60ekoa da, hau da, 0,3 puntu iaizko KPIren azpitik.

Azkenik, Elorrieta pozik azaldu zuen sindikatuak hitzarmen-tan lan ordenantzak sartzea lortzen ari direlako, nahiz eta enpresariak horren aurka agertu.

Lanaren egoera eztabaidagai du Akizen Herrien Arteko Kontseilu Sindikalak

L.F. / AKIZE

«Lana gure herrietan» lemapean antolatu zuen kongresua Akitania, EAE, Nafarroa eta Aragoiko sindikalistak biltzen dituen CSI Herrien Arteko Kontseiluak Akizen. «Lan arazoak berberak direlako mugaz gainetik, azterketa eta lan bateratua eramatea erabaki genuen» Joseph Saint Martin CSIren lehendakari ohiak atzo adierazi zuenez.

Estatuen enplegu politikak aztertzeke asmoz, CSI antolatutako hirugarren kongresuak mugaz bi aldeetako sindikatuen ordezkariak bildu ditu atzotik Akizen.

Urtero egiten ohi den kongresu horrentzat, «Landesetako herri horren hautua ez da nolanihi eginga izan», Saint Martinek zioen. «Europak bihar ezagutuko dituen arazo garrantzitsuen adibideak hemen bilduak ditugu: oihanaren arazoak, aeronautika

arloan aldaketak edo Lacq lan-tegiaren konbertsioa». Joan den urtean, Europar dauden lege sozial ezberdinei buruzko kongresua antolatu zuen Iruñean CSIk.

Sindikatuaren arteko kontseilu hori 1991n sortu zen, Europako Sindikatuen Kontseiluak bultzaturik. «Europa soziala prestatzeko», Europa mailan elkartu ziren herri guztietako sindikatu batzuk. Euskal Herriari dagokionez, «Ekialdeko Pirinioak eta Atlantiko adarra» biltzen dituen kontseiluan kokatzen da. Kontseilu horretan Akitaniako CFDT, CFTC eta FO sindikatuak eta Aragoi eta Euskadiko UGT eta CCOO sindikatuak daude. Lehendakaria urtero aldatzen ohi den bezala, Saint Martinek utzi duen kargua CCOOko Santiago Bengoak hartu zuen atzo datorren urtera arte.

«Biharko arazoei buru egiteko, herrien arteko elkartasuna

beharrezkoa dago sindikal mailan» deklaratu zuen Bengoak. CCOO sindikatuaren bozemailearen arabera «indar harremana inposatu behar dugu Europa mailan eta Europar zehar 35 milioi langile biltzen duen Kontseiluak indar hori ukan dezake». Gaur egun, Estatu frantsesean mugaz gaineko 14 Sindikatuen Kontseiluak daude.

«Españian Frantziaren baino, aginte ekonomikoek gure ikusmoldea adieraztea errezagotzat» jo zuen Bengoak. «Euskadiko Komunitateak edo Nafarroako Autonomiak indar handia dute ekonomi mailan eta garapen arloan, Akitaniak ahal gutxi duelarik» gehitu zuen.

Kontseiluaren hiru urteko iraupenaren ondoren, «azterketa eta elkar ezagutzeko garaian gaudela oraindik». Lehen etapa hori garrantzitsua iruditzen zaie «kontseiluaren geroa prestatzeko».

Jose Maria Korta Adegiko lehendakari aukeratuko dute

J.A. / DONOSTIA

Jose Maria Korta zestoarra izango da gaurdanik Adegiko (Gipuzkoako Enpresarien Elkarte) lehendakaria, azken bi urteetan postu horretan egon den Tomas Arizetaren ordeiz. Adegik Urteko Ohizko Biltzarra egingo du gaur Donostian eta elkartearen lehendakari izateko hautagai bakarra Korta da.

Enpresari gipuzkoarrek gaur aukeratuko duten presidentea seigarrena izango da Adegiren historian. Lehenago Antxon de la Cava, Jose Maria Vizcaino, Antxon Marquet, Jesus Maria Agirre eta Tomas Arizeta izan dira postu horretan. Bere agintaldia bukatuta, Arizeta Ibermática enpresan lan egitera itzuliko da, bertako kontseilari-ordezkarria da eta.

Jose Maria Korta duela 50 urte jaio zen Zestoako Arruan, ezkondua da eta hiru seme dauzka. Euskaldunak izeneko kooperatibaren zuzendari komertzial moduan lan egin ondoren, 1969an Korta S.A. enpresa sortu zuen bere anaiekin eta gaur egun bertako gerentea da. Enpresa honek ardatzak egiten ditu, 42 langile dauzka eta Europa, Asia nahiz Ameriketako lurraldeetara esportatzen du.

Adegiren Ohizko Biltzarrekin batera, Gipuzkoako patronalaren Enpresaren Eguna ospatu ohi du. Aurten, ospakizun honetan 500 enpresari inguru bilduko dira Donostian, ekonomia, finantza eta erakundeetako goi karguekin. Ospakizunetan Jose Antonio Ardanza lehendakariak eta Jaurlaritzako sailburu zanbaitek ere parte hartuko dutela aurrikusita dago.

Pasaiako

Udala

IRAGARKIA



Gipuzkoako Foru Diputazioko Ogasun eta Finantza Departamentuko Tributu Lokalen Zerbitzuak 1994ko ekitaldirako egindako Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren urteko Errolda jadanik eginak duenez argipideketa publikora jartzen da. Zerga hau erregulatzen duen uztailaren 5eko 13/1989 Foru Araueko 16.2 artikuluan xedatutakoa betez, ondorengo arauen arabera:

a) Erroldak ikusgai aurkitzen dira Kontuhartzaitzaren Departamentuan (San Juan kalea 136) astelehenetik ostiralera 9tatik 2tara.

b) Aztertzeke epea hamabost lanegunetakoa izango da iragarkia hau gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamuneko lanegunetik kontatuta.

c) Erreklamazioak Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztuko dira bulego orduetan.

d) Erreklamazioak aurkezteko epea 15 lanegunetakoa izango da, b) atalean adierazitako moduan kontatuta.

Pasaiako 1994ko maiatzak 31.